OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: 34
Nork aurkeztu du:

Zierbenako Udalaren EH Bildu talde

Aurkezpen data: 2022/02/04

Sugerencia Nº: 34
Presentada por:

Grupo EH Bildu en Ayuntamiento de Zierbena

Fecha de presentación: 04/02/2022

## IRADOKIZUNAREN LABURPENA

Adierazten du "Porturako mendebaldeko sarbide berria (N-639)" eraikitzearen aurka dagoela, arrazoi hauengatik:

1. Azpiegitura horrek El Puerto eta Valle auzoetan eragiten duen ingurumen-, paisaia- eta hirigintza-inpaktua. Bereziki Valle auzoan, udalerritik isolatuta geratuko litzatekeelako.

2. Proiektua beharrezkotzat ez jotzea, N-639 errepidearen egungo trazadura ordezteko edo askatzeko pentsatuta baitago. Errepide horrek ia-ia ez du portuko trafikorik, eta ibilgailuek lehendik dauden beste bi sarbide erabiltzen baitute: bata, La Arena auzoan (Zierbenan bertan), eta bestea, Santurtzin; gainera, dagoeneko eraikita dagoen eta erabiltzen ez den trenbide-tunela dago.

3. Serantes-La Arenako Parke Metropolitarraren proiektuarekiko dagoen kontraesana, nabarmen baldintzatzen baitu.

4. Herritarrek istripu larriak izateko arrisku handiagoa, ibilgailu astunak igarotzeagatik eta salgai arriskutsuak garraiatzeagatik.

5. Portu Autonomoaren jardueraren ondorioz gaur egun udalerrian dauden afekzio ugari.

## RESUMEN DE LA SUGERENCIA

Se manifiesta la oposición a la construcción del vial "Nuevo Acceso Oeste al Puerto (N-639)" basada en los siguientes motivos:

1. El impacto medioambiental paisajístico y urbanístico que esta infraestructura provoca sobre los barrios de El Puerto y Valle. En especial sobre este último, que quedaría aislado del resto de los del municipio.

2. Considerar innecesario el proyecto, concebido para sustituir o liberar el actual trazado de la N-639. Esta carretera resulta ser un vial sin apenas tráfico portuario, el cual se realiza a través de otros dos accesos ya existentes, uno por el barrio de La Arena (en el propio municipio de Zierbena) y otro por Santurtzi; además del túnel ferroviario ya construido y en desuso.

3. La contradicción que supone respecto al proyecto del Parque Metropolitano Serantes - La Arena, al cual condiciona notablemente.

4. Considerar el aumento de riesgo de accidente grave para la población debido al paso de vehículos pesados y el transporte de mercancías peligrosas.

5. La gran cantidad de afecciones ya existentes actualmente en el municipio por causa de la actividad del Puerto Autónomo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CHS4-PY7Z-4HKH-NQ3W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

6. Zierbenako Udalak 2021eko abenduaren 30eko osoko bilkuran aho batez adierazi duen desadostasuna

IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

Bizkaiko Errepideen II. Lurralde Planean jasotzen diren BFAko Berrikuntzako eta Bide Kudeaketako Zuzendaritza Nagusiaren aurreikuspenak kanpoko porturako mendebaldeko sarbidearen eta A-8aren arteko lotura egitera mugatzen dira.

Lotunearen bide-zatia, bestalde, LPPan jasoko da, lurralde-ereduaren iradokizun gisa, eta Bilboko Portuak berak garatu beharko du. Bide zati horren konponbideak ezin du bakartuta utzi Zierbenako Valle auzoa udalerriko gainerako auzoetatik, eta ezin du eten Serantes-La Arena parke metropolitarren jarraitutasuna.

6. La disconformidad del Ayuntamiento de Zierbena expresada por unanimidad en sesión plenaria de 30 de diciembre de 2021.

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

Las previsiones de la Dirección General de Innovación y Gestión Viaria de la DFB que se recogen en el II Plan Territorial de Carreteras de Bizkaia se limitan a la realización del enlace de la conexión del Acceso Oeste al Puerto Exterior con la A-8.

El tramo viario de conexión, por su parte, será contemplado en el PTP como sugerencia del modelo territorial, a desarrollar en su caso por el propio Puerto de Bilbao. La resolución de dicho tramo no deberá aislar el Barrio de Valle (Zierbena) del resto de los del municipio, ni comprometer la continuidad del parque metropolitano Serantes-La Arena.

**LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA**
**LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL**

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: CHS4-PY7Z-4HKH-NQ3W
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus